



Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoen fusioa

Urumeak, Elizatxok eta Institutuak azaldu dute zergatik dauden fusio prozesuaren alde

Datorren ikasturtean Hernaniko lau ikastetxeak bateratuko dira, eta prozesuari buruzko iritzia eman dute Urumea BHIK, Elizatxo BHIK eta Hernani BHIK (Institutuak).

HERNANIKO Kronikara bidalitako prentsa oharrean, Urumea BHIK, Elizatxo BHIK eta Hernani BHIK (Institutuak) euren iritzia eman dute, Hernaniko ikastetxeek datorren ikasturtean egitekoa den fusioari buruz. Hiru ikastetxeak fusioaren alde azaldu dira, eta hirurek uste dute onugarri izango dela. Lan asko dagoela egiteko diote, eta denen artean proiektu egoki bat adosteko lan egingo dutela. /3

❖ URUMEA

Iñude eta artzaiak bihar eguerdian

Urumea ikastolak urtero antolatzen duen iñude eta artzainen konpartsa aterako da bihar 12:00etan, ikastolatik bertatik. Kale buelta egingo da, Gudarien plazan antezelan nagusia egingo dute. Bertan iñudeen haurrei txertoa jarri, agintarien aurrean aurkeztu, eta erregistroan izena emango diete. Arin-arinarekin emango diote bukaera ekitaldiari, eta ikastolara bueltatuko dira. ||

❖ OSIÑAGA

Batzarra bihar

Urte hasierako batzarra egingo du Osiñagako auzo elkar-
teak. Bost puntu izango dira
hizketagai batzarrean. Bihar,
12:00etan, Arriatsu eskolan. ||

❖ BERRIAK ELKARTEA

Jaurlaritzak emandako bulegoa aurkezteko bilera astelehenean

Berriak elkarteak kideei dei egin die astelehenean izango den bilerara azaltzeko. Eusko Jaurlaritzak dinamizatorako emandako bulegoa aurkeztuko dute. 20:00etan, Villa Ave Marian. ||



Zartai eta pandero hotsek alaituko dituzte kaleak gaur

INAUTERIAK iragarri, padera eta mailuak eskuan, Langileko ikasleek atzo ospatu zituzten kaldereroak. Gaur, berriz, helduen txanda izango da. Kaldereroen konpartsa aterako da gaueko 21:00etan Elur Txori elkartetik; aurretik ondo afaldu ondoren. Kantu, zartai-hotsek eta txaranga artean, kale buelta egingo da, Plazan kanpamendua jarriko dute urteroko moduan. /2

GAUR KRONIKAN

Jasota bezala eta laburrak /2

KIROLA: Pelota, errugbia, futbola, xakea, boleibola, saskibaloia, bola, atletismoa eta gimnasia /6-7

Aranoko inauteriak /8

Zinea /8

ALTZUETA

SAGARDOTEGIA



Asteartetik
larunbatera
gauz irekita

larunbatetan
eguerdian irekita



www.altzuetasagardotegia.com



Gaur hasten dugu Txotx denboraldia

Osiñaga auzoa 7 - Hernani - 943 55 15 02

Inauteri alaiaren iragarle gu gara!

Elur Txori elkartetik aterako da gaur kaldereroen konpartsa gaueko 21:00etan. Kalera atera aurretik, apuntatu direnek afaria izango dute 19:30etan.

JANTZI, zapi eta koilare dotoreak gainean, zartai, mailu eta panderoak eskutan, kaldereroen konpartsa aterako da gaur gaueko 21:00etan, Elur Txori elkartetik urtero bezala. Inauteriak iragartzera aterako dira. Txarangaren erritmora kale buelta egin ondoren, Plazan kanpamendua jarriko dute.

Aurretik, apuntatu direnek afaria izango dute elkartean bertan, 19:30etan.

Atzo Langileko ikasleak

Helduei aurre hartuta atzo Langileko ikasleak ibili ziren mailu eta zartaiak eskutan kaleak girotzen. Plazan kanpamendua jarri eta txokolatea hartuta ospatu zituzten kaldereroak. ||



Kaleak girotu ondoren, kanpamendua jarri eta txokolatea hartu zuten Langileko ikasleak atzo Plazan.

❖ HARRERA

Atzo askatu zuten Egoitz Balerdi

Egoitz Balerdi hernaniarra baldintzapeko askatasunean geratu zen atzo libre, eta arratsaldean iritsi zen Hernanira Teruelgo espetxetik. Arratsaldeko 20:45ak aldera herritar talde handi bat zuen zain eta harrera gozoa egin zioten. ||



❖ ITXIALDIA

Senideek deitutako itxialdia gaur arratsaldean bukatuko da manifestazioarekin

Hernaniko preso politikoen senideek deituta, zenbait herritar itxialdia ari dira egiten Udaletxean «euskal preso politikoen borrokaldiarekin bat egiteko». Gaur 19:00etan bukatuko dute eta ondoren manifestazioa egingo da Gudarien plazatik abiatuta. Aurretik, eguerdiko 12:00etatik 14:00etara, mahaia jarriko dute plazan bertan, kartzeletako politika salatzeko asmoz. Bertan, espetxe zuzendariei eta Espainiako gobernuko arduradunei burofaxak bidaltzeko aukera izango da. ||

❖ SAGAR MARTXA

9km-ko ibilia bihar

Txotx denboraldiko ekitaldiak bihar hasiko dira Sagar martxarekin. Goizeko 09:00etan Plazatik abiatuta, goiz-pasa izango da: 9 km-ko ibilia sagardotegiak eta sagastiak ikusiaz egingo dute. ||

❖ XALAPARTA

Urteko batzarra, bihar goizean

Xalaparta elkarteak bihar egingo du urteko batzar orokorra. Bi deialdi egin ditu: lehendabizikoa goizeko 10:00etan, eta bigarrena goizeko 10:30etan. ||

🔗 Jasota Bezala

• Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefona • Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira • Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Herriaren ahotsa entzun dadin

Gutun honen bidez, honakoa jakinarazi nahi diegu herritarrei. Herri-plataforma bat jarri dugu martxan, helburu bakar batekin: behar diren firma guztiak biltzea, Udal Agintariei eskatzeko: erreferendum bat egin dezala, Atez Ateko sistema martxan jarri aurretik. Firmatzeko orriak eskuz esku dabil-tza Hernanin, eta datorren ostegunearan ferian izango gara.

Animatu zaitezte, eta exijituko diegu entzun diezaigutela.

Carmen Bustamante

*erredakzioan euskeratua

zaharregi, diru gutxiko, ezindu, kotxea alboratu dutenek, adibidez), ordubete inguru behar zuten helmugara iristeko. Urte berriarekin estrenatutako G3 zerbitzuari esker ibilbide bera askoz denbora gutxiagoan egin daiteke eta, gainera, merkeago.

Errepasa ditzagun linea berri hori ezartzeak dakartzan zenbait datu eta ondorio.

Kronikan azaldutako datuen arabera, lehen astean 2.114 erabiltzaile mugitu ziren G3an batzbesteko hemezortzina bidaiariko 140 bat joan-etorrietan.

Mugikortasunaren iker-tzaileek kotxe pribatuari 1,2ko okupazio tasa aplikatzen diotela kontuan hartuta, 1.700 kotxe behar dira bidaiari multzo hori garraiatzeko.

Hau da: 1.700 motor, 1.700 bozina, 8.500 pneumatiko, eta baita kuantifikatzen zaila den histeria ere.

Okupatzaile kopuru berdina garraiatzeko busak atmosferara botatzen duen CO2 kantitatea laukoizten du kotxeak.

Erregai kontuan, (beti erabiltzaile parekotasunean) hegazkina ez ezik, beste edozein garraio kolektibok baino gehiago irensten du kotxeak.

Gure kasuarekin jarraituta, Ospitaletara iristen diren kotxe erabiltzaileen ilusio nagusia (utopiko bezain frustrantea): iritsi eta bertan aparkatzea; autobusak ordea jendea jaso eta bere zikloa jarraitzen du.

Ez dut daturik ezagutzen beste parametro batzuek erreferentziarik eman ahal izateko (siniestralitatea, zarata, herriarteko errepideetako ohizko ibilgailu pilaketak, eta abar).

Hilean behin, mugikortasunari zuzendutako Topagune Berdean biltzen garen lau katuek (etxeko katuek, ederrak benetan) interes handiz partekatzen ditugu gai honen inguruan Hernanik sortzen dituen kezkek. Nola ez amets egin, esate baterako, gure herriak gero eta premi handiagoz eskatzen duen barne garraio kolektiboa, efektiboa eta behartue-

nen ekonomiari egokituarekin?

Etorkizun beldurgarri baten atarian 'bizi' garela uste dugu. Keba! Atari hori aspaldi gainditu genuen. Etorkizun beldurgarri horretan gaude, jada errealtate gogor bilakatzen ari baitzaigu. 2000 urtean 700 miloi kotxe omen zeuden munduan. 2030 urterako kopuru hori bikoiztea espero omen da (www.consumer.es/web/es/motor/mantenimiento_automovil/2004). Lasai, mundu dimentsioaz aritzeak ez gaitu zorabiatu behar. Tokiko datuak askoz kezagarriagoak dira. Hernani mikroplanetan bertan, 9.000 kotxe inguru daukagu, eta 2015erako kopuru hori 14.000raino igo daitekeela aurreikusten da (Hernaniko Udala, Hirigintza saileko *Mugikortasuna eta desplazamenduak* txostena).

Gaur egun, herrialde garatuetan behinik behin, mugikortasun sostengarriaz Interes minimoa duenak badaki, garraio kolektiboak neurri haundiago batean erabili beharko lituzke-

la. Informazio hori kontzientzian zein neurritan gorpuzten den beste kontu bat da. Eta herritar hori Bere konzientziarekin konsekuente izango den ala ez, kontu urrunago bat. Bus linea berri bat martxan jartzea justifikatuta baldin badago (kapitalista gakoa: errentagarria baldin bada), automatikoki bus horrek betetzen duen ibilaldia kotxe pribatuaz egiteko erabili ohi diren justifikazio/aitzakiek indarra galtzen dute.

Ariketa ximple honek eskaintzen digun irakaspena begi-bistakoa da. Nire txalo xume eta zintzoa G3aren estreinaldia ahalbidetu duten pertsona, zein enpresa, zein erakundeei.

Amaitzeko, Kronikako irakurle sufritu hori, garraio kolektiboaren abantailaz mintzatu ondoren, nire gogoetaren baitan bidaiatzen duen galdera pribatu bat kolektibizatu nahi dut zurekin: zergatik erretzen ote dituzte autobusak?

Luix Gorrotxategi Zigaran

BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXE PUBLIKOEN FUSIOA

Urumea BHI eta Elizatxo BHI:

«Inposaketa edo legearen aplikazioa?»

Urumea BHI eta Elizatxo BHIk dioenez, 2007an Euskadiko Legebiltzarrak onartu zuen Eskola Mapa berria, eta handik dator ikastetxeen fusioa. Beren ustez, proiektu berria «ikastetxe publiko sendo bat» izango da.

URUMEA BHI eta Elizatxo BHI Hernaniko ikastetxe publikoaren alde azaldu dira, eta beraien arrazoiak eman dituzte, prozesuari buruz, eta proiektua izango denari buruz.

2004an hasitako prozesua

Elizatxok eta Urumeak bereizi egin nahi dituzte, bi prozesu, fusioaren ingurukoak. Batetik, 2004-2005 ikasturtean hasi zen proiektua dago. «Prozesu hura borondatezkoa zen; urte batzuk elkarrekin lanean aritu eta gero, Organo Gorenetan azken erabakia hartu zen, Hernani osoak ezagutzen duena: fusioaren alde Elizatxo BHI, Hernaniko Institutua, eta Urumea BHI; kontra Langile BHI».

Bestetik, bigarren prozesu bat dago, Hernanitik kanpora egin dena, Euskadiko Legebiltzarrean. Prozesu horren ondorengo etorri da, Delegazioaren erabakia, bi ikastetxeek adierazi dutenez, Kronikara bidalitako prentsa oharrean.

«Eskola Mapa berriak fusioa eskatzen du»

Hernaniko Kronikara bidalitako prentsa oharrean, bi

ikastetxeek adierazi dute, Hezkuntza Delegazioak hartu duen erabakiaren atzetik Legebiltzarreko erabaki bat dagoela, 2007 urte bukaeran Euskadiko Legebiltzarrak onartua. Beraz, bi ikastetxeen arabera, legea aplikatzen ari da delegazioa.

«Hezkuntza proiektua 4 ikastetxeen artean erabaki behar da, bakoitzaren gauza onenak baliatuta»

«2008a bukatu baino lehen, Euskadiko Legebiltzarrak Eskola Mapa berria egiteko irizpideak onartu zituen. Irizpide horiek agintzen dute, Bigarren Hezkuntzak desagertuko direla (Elizatxo BHI, Langile BHI eta Urumea BHI bezalakoak) eta bere ordean, DBH-DBHoko ikastetxeen integrazioa egingo dela, Batxilergoko Institutuak dituzten herrietan (Hernaniren kasua, hain zuzen)».

Horregatik, lehen egin zen prozesua eta oraingoa desberdinak dira. «Oraingo honetan,

Euskadi osorako egokia dela erabaki den legea aplikatzen hasi eta legitimidade horrekin, Hezkuntzak berriro bildu gintuen Hernaniko ikastetxeok, eta esan zigun, Eskola Mapa berriak zer ekarriko zuten Hernanira».

«Hernaniko Institutu berria» Ikastetxe publiko sendo bat izango da, Hernanin sortuko dena, fusio prozesuaren ondorioz. Hori da bi ikastetxeek prentsa oharrean diotena. «Hernaniko ikasleek ikastetxez aldatu gabe egingo dute 12-18 urteko tartea».

«Herriko eraikuntza egozienak izango ditu proiektu berriak, eta horien ondoan, beste eraikuntza berri bat ere egingo dute, oraingo instalazioak hobetzeko».

«Ikastetxe berriaren tamainari esker, ibilbide edukatibo gehienak eskaintzeko aukera bermatuko da».

Azkenik, diote, hezkuntza proiektua 4 ikastetxeen artean erabaki beharko dela, eta ikastetxe bakoitzak dituen gauzarik onenak baliatuz, denontzat proiektu on bat egingea dela helburua. II

Hernani BHI:

«Etorkizuneko bideak eraikiz»

HERNANI BHIko Zuzendaritzak prentsa oharrean iritzia azaldu du, ikastetxeen fusioari buruzkoa. Prentsa oharrean gehienetan zailtasunak bakarrik ikusten ditugulako: hezkuntza proiektuaren aldaketak (lan metodologiak, ikas materialak, gurasoen parte hartzea...), azpiegiturak, administrazioaren benetako konprometua baliabideak ematerakoan... eta guzti honen aurrean Lehen Hezkuntzako 6. mailako gurasoek erabaki bat hartu behar!».

«Eskola plangintzaren gaia aspaldikoa da; Hernani BHI bera horren isla da»

Zuzendaritzaren iritziz, eskola plangintzari buruz azkenaldian gauza asko irakurri eta entzun dira; batzuk «erabat errespetagarriak, bakoitzak bere ideiak defendatuz errespeto osoz argudiatutakoak, eta beste batzuk berriz, ez hain defendagarriak ez jakintasunean eta aurreiritzietan soilik oinarritutakoak».

Eskola plangintzaren gaia aspaldikoa dela dio Hernani BHIko zuzendaritzak. «Eskola Mapa diseinatu zenekoa hain zuzen, eta horren isla da gaur egungo Hernani BHI bera; Agustín Iturriaga eta Karmelo Labaka bateratu ziren, baina

orduan Administrazioak hartu zuen erabaki politikoak egungo panorama utzi digu».

Oraingo prozesuari dagokionez, Hernani BHIk prozesuan buru-belarri sartzea erabaki zuen, «Administrazioak hala eskatuta, eta klaustroan hausnarketa serio bat eginda, eta bukaeran adostu zen dokumentua Eskola kontseiluan onartu zen».

«Egitasmo bera, lau hezkuntza proiektu, lau ikastegi, heziketa garatzeko lau modu biltzeko ahalegin hau, aukera ezin hobea da pedagogia azterketa serio bat birplanteatzeko»

«Proiektu serioa, integratzailea eta berritzailea nahi dugu»

Prozesua zaila izango dela garbi ikusten du Hernani BHIk baina, garbi dauka aurrera egin nahi duela, «Hernaniko Bigarren Hezkuntzarako proiektu serioa, integratzailea eta berritzailea nahi dugu, eta egungo prozesua sustatuko dugu, helburu horrekin».

Bukatzeko, diote: «Azken finean, ikastetxeetako Hezkuntza Proiektuak, guztiak, dinamikoak eta biziak dira». II

IES HERNANI BHI

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

12-18

Etorkizuneko bideak eraikiz

INFORMAZIO GEHIAGO HERNANIKO
ERREFERENTZIZKO IKASTETXEETAN

Telefonoak:

☎ 943 551188

☎ 943 551958

☎ 943 330080

☎ 943 552633




MATRIKULA EPEA: OTSAILAK 1-12

BATXILERGOAK



GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA



HEZIKETA ZIKLOAK



MEKANIZAZIOA (ERDI MAILA)
INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK (ERDI MAILA)
PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA (GOI MAILA)
INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK (GOI MAILA)

Euskal Herriaren historiari buruzko solasaldiak

Historia berreskuratzeko eta faltsifikazioei aurre egiteko kanpaina

«Jendarteari dei egin nahi zaio 1512ko konkistaren 500garren urteurrena gainean dugula, gure historiaren oroitzapena berreskuratzeko eta faltsifikazioei aurre egiteko», azaldu du Amaiur 1512-2012 Nafarroa bizirik elkartea-

ak. Eta Hernaniko Udalarekin batera, Euskal Herriaren historiari buruzko bost solasaldi antolatu ditu Biterin, asteartean hasita. Herri ezberdinetan bultzatzen ari den sentsibilizazio kanpainaren barruan kokatzen dira.

EUSKAL Herriko historian barrena ibiltzeko aukera izango da datozen egunetan Hernanin. Hernaniko Udalak eta Amaiur 1512-2012-Nafarroa bizirik elkartea antolatuta, bost solasaldi izango dira Biterin, arratsaldeko 20:00etan hasita. Lehenengo datorren asteartean, otsailaren 9an izango da, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabaren galararaino arituko dira: IXgarren mendetik 1300 urtera. Angel Rekalde Nabarraldeko kidea izango da hizlaria. Beste solasaldi bat ere izango da datorren astean; zehazki ostegunean, hilaren 11n, eta aztertuko da historiaurretik IXgarren mendera arteko garaia, hau da, Iruñeako Erresumaren sorrerainokoa. Beñi Agirre hernaniarrak emango ditu azalpenak. Berau ere Nabarraldeko kidea da.

Hilaren 16an, berriz, Nafarroa Garaia konkista izango dute hizketagai. 1512 urtean zentratuko dira eta aitzindariak eta ondorioak azalduko dituzte. Handik bi egunetara, hilaren 18an emango zaio jarraipena Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoa Frantziapen geratu zireneko kontaktarekin. Eta azken solasaldia hilaren 23an izango da eta bertan azalduko dira soberaniaren aztarnak.



Xabierko gaztelua, Frantzisko Xabier bertan jaio zen (1506), artean, Nafarroa independentea zela.

Solasaldiak dohainik dira, baina aurretik izena eman behar zen.

1512-2012, Nafarroa bizirik elkartea sentsibilizazio kanpaina

1512-2012, Nafarroa bizirik elkartea helburu jakinarekin sortu da, Nabarralde bultzatua eta hainbat pertsonaia publikok babestua. «2012 urtean, 500 urte beteko dira

«Iragarrita dago agintariak historia berriz ere manipulatu dute. Herriaren kontzientzia faltsutuko dute, 500 urte betetzera doan biolentzia-egoera bat lausotzen ahaleginduko dira».

1512ko konkistatik, hau da, historiaren manipulazioak ituntzat aurkeztu digun inbasiotik. Luzea da nafar erresumak jasan dituen eraso

zerrenda, baina 1512koa garrantzitsuena izan zen, eta galdutako askatasunaren ikur bilakatu da. Eta jadanik iragarrita dago agintariak historia

berriz ere manipulatu dute. Herriaren kontzientzia faltsutuko dute, 500 urte betetzera doan biolentzia-egoera bat lausotzen ahaleginduko dira», diote 1512-2012 Nafarroa bizirik elkarteko kideek. Eta horren harira antolatu dituzte Hernanin egitekoak diren bost solasaldi horiek. Herri ezberdinetan egiten ari diren sentsibilizazio kanpainaren barruan, hain zuzen.

«Faltsifikazioei aurre»

«Sentsibilizazio kanpaina honekin jendarteari dei egin nahi zaio 1512ko konkistaren 500garren urteurrena gainean dugula, gure historiaren oroitzapena berreskuratzeko, eta, beraz, faltsifikazioei aurre egiteko», gaineratu dute. Eta azaldu dute kolokan ez dagoela iraganaren inguruko interpretazio bat ala beste, gaur egungo egoera eta etorkizunaren aurreko eztabaida baidak. «Manipulazioak, azken batean, Nafarroa erabakitze-ko ahotsik ez duen egoera hau legezkatat jotzeko asmoa du. Itunaren ideia faltsuak estali nahi du Nafarroa ez dela burujabe, asimilazio prozesuan dagoela, akulturazioan, berezko erakundeak ukatzen direla, bere nortasuna, hizkuntza, kultura...». II

TELEMAR

Elkano kalea 13 - Nagusia 7 - HERNANI -

Telefonikako banatzaile ofiziala

ADSL ESKAINTZA

<p>DUO 10 Mb</p> <p style="font-size: 1.2em;">12 kuota 19,9€</p> <div style="display: flex; justify-content: space-around; margin-top: 5px;"> <div style="border: 1px solid black; border-radius: 50%; padding: 2px; text-align: center; font-size: 0.8em;">DUO ALTA DOAN</div> <div style="border: 1px solid black; border-radius: 50%; padding: 2px; text-align: center; font-size: 0.8em;">MRI* BARNE</div> </div> <p style="font-size: 0.8em; margin-top: 5px;">12 hilabeteko konpromezua eta orain PACK MOVISTAR opari</p>	<p>TRIO FAMILIARRA 6 Mb</p> <p style="font-size: 1.2em;">12 kuota 34,9€</p> <div style="border: 1px solid black; border-radius: 50%; padding: 2px; text-align: center; font-size: 0.8em;">ALTA + MRI + INSTALAZIOA DOAN</div> <p style="font-size: 0.8em; margin-top: 5px;">MRI: modem, router, wifi</p>	<p>TRIO FAMILIARRE 10Mb</p> <p style="font-size: 1.2em;">12 kuota 34,9€</p> <div style="border: 1px solid black; border-radius: 50%; padding: 2px; text-align: center; font-size: 0.8em;">ALTA + MRI + INSTALAZIOA DOAN</div> <p style="font-size: 0.8em; margin-top: 5px;">Promozio epea otsailaren 7a.</p>
---	--	--

Nafarroa Garaiaren konkista izeneko solasaldiak, hau da, emango den hirugarrenak, badu bereziki interesgarria egiten duen kontakizuna hernaniarrentzat. Izan ere, urte hartan, 1512an erre zen Hernani. Zergatik erre zen eta nork agindu zuen su ematea ezagutzeko aukera izango da aipaturiko solasaldian eta baita garai hartako kontakizun gehiagoren berri izateko ere. Beñi Agirrek aurrerapen txiki bat ekarri dio Kronikari.

Beñi Agirre - Nabarraldeko kidea

1512, Hernani erre zuteneko urtea

OTSAILAREN 16an, asteartean, hirugarren solasaldiaren txanda izango da: *Nafarroa Garaia*ren konkista. Aitzindariak eta ondorioak izenekoak, eta 1512 urtera eramango gaituzte azalpenek. Bertan kontatuko dute Hernani noiz eta zergatik erre zen, besteak beste. Solasaldira joateko aukerarik ez dutenek hementxe dute garai hartako egoeraren azalpen txiki bat. Beñi Agirre Nabarraldeko ki-deak kontatu dizkio Kronikari solasaldiaren xehetasunak.


Hernani erre, gaztelarrek laguntzarik ez jasotzeko

1200 urtean, Gasteiz zazpi hilabetez setiatu eta suntsitu ondoren, gaztelarrek Hondarribiraino sartu eta Hernani beretu egin zuten, beste hainbat herriekin batera. 1512an, Nafarroa Garaia inbasio garaian, Hernanik harresiak eta dorreak zituen inguruan eta kokapen estrategikoa zuenez, hernaniarrek nahi ala nahi ez, parte zuzena hartu behar izan zuten konkistan eta ondorengo sarrasketan.

1512ko uztailean, Urumean barrena sartu ziren lehenengo oste espainiarrak Iruña hartzera, eta uztailaren 24an erori zen hiriburua. Azaroan, Nafarroako Joan Albret erregearen eta La Palicen osten adar bat Iruña berreskuratzeko guduan ari zen berriro. Eta bien bitartean, beste adar batek Irun, Oiarzun, Errenteria eta Hernani hartu eta erre egin zituen Iruñan ziren gaztelarrek laguntzarik jaso ez zezaten.

Benetako asmoa, Nafarroa menperatzea

1512ko urtean, Gaztelan, Joana Eroa zen erregina titularra, baina, honen eraldia zela-eta, bere aita Fernando II.a Aragoiako gobernatzan zuten (Katolikoa, Faltsarioa edota Inksidorea ere deitua). Urte hartan, Frantziako Luis XII.aren eta Aragoiako Fernando II.aren arteko gerra piztu zen. Ingalaterrak ere bazuen honetan interesik,



Beñi Agirrek azaldutakoaren arabera, Nafarroako erresuma ez zitzaion bere borondatez batu Gaztelari.

Nafarroako Joan Albret erregearen eta La Palicen osten adar bat Iruña berreskuratzeko guduan zen bitartean, beste adar batek Irun, Oiarzun, Errenteria eta Hernani hartu eta erre egin zituen Iruñan ziren gaztelarrek laguntzarik jaso ez zezaten.

espainiarra garailea izanez gero, Ehun Urteko Gerran galdutako Akitania berreskuratzeko baitzuen.

Hori horrela, Fernando II.ak Ingalaterrako erregearekin hitzarmena egin zuen frantziarren kontra. Hala eta guztiz ere, Aragoi-Gaztelako erresumaren benetako asmoa ez zen frantziarren kontra aritzea, Nafarroa haien pean jartzea baizik. Nafarroako erresuma oso egoera ahulean zegoen militar arloan eta gainera, egungo Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lur gehiena Gaztelaren pean zegoen 1200eko inbasioez geroztik.

Inbasioa, Aita Santuaren bulda aitzakiatzat hartuta
Fernando II.a Aragoiakoak Julio II.a Aita Santuak emandako

“Pastor ille caelestis” delako bulda aitzakiatzat hartuta, Nafarroa Garaia inbasioa martxan jarri zuen. Bulda hori, ordea, ez zen existitzen. Geroztik eginarazia da.

Uztailaren 10ean, Donostialdean zeuden oste espainiarrak Urumea ibaian gora egin eta Goizuetan barrena sartu ziren. Ekialdetik, berriz, Tazona eta Erriberritik abiatu ziren Erronkialdeko ihesbidea mozteko asmoz. Hilaren 17an, Fernando II.ak Albako dukeari agindu zion Gasteiztik atera eta Iruñarantz abiatzeko.

Uztailaren 24an, Fernando Logroñon zain zegoela, sinatu zen Iruñako kapitulazioa eta Joan III.a Albret eta Katalina I.a Nafarroako errege-erreginak ihes egin zuten Biarnora.

Gaztelarrek Espainiako zaindariaren eguna, Santiago eguna, aukeratu zuten Iruñan sartzeko: uztailaren 25a. Gainera, 1512ko abuztuaren hasieran, Albako dukearen osteak Donibane Garazin sartu ziren.

Kapitulazioa eta inkisizioa

Fernando II.ak nafar hiritarrek bere alde jartzea nahi izan zuen, horregatik, Nafarroako funtzionario eta jauntxo pibilejioak errespetatu zituela zin egin zuen Iruñako kapitulazioan. Baina, ez zituen garrantzizko karguak nafarren eskuetan jarri. Gainera, Cisneros Kardinalak gaztelu eta dorreak suntsiarazi zituen nafarrei birkonkistarako aukera galarazteko, herriak sakeatu zituen, emakumezkoak bortxatu, jendea torturatu, hil. Villalba jeneral espainiarrak “herriari izu osasuntsua inposatzea beharrezkoa zela” esan zuen.

1512ko irailaren 21ean, Erromako elizaren laguntzaz, Fernandok Inkisizio Santuaren Tribunal modernoa ezarri zuen. In-

Kronologia

1054an, Fernando I. Gaztela-Leongo erregeak bere anaia Gartzia III.a Nafarroakoa Atapuerkan hil eta Nafar erresumaren mendebaldea inbaditu zuen: Oka mendiak eta Bureba. 1076an, Nafarroako Antso IV.a Peñalenen asasinatu zuten eta Gaztelako Alfontso VI.ak Naiara eta Errioxa hartu zituen. 1200ean, Gasteiz zazpi hilabetez setiatu ondoren, Gaztelako Alfontso VIII.ak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa hartu zituzten Hondarribiraino. 1512ko uztailean, espainiarrek Nafarroa Garaia eta Beherea inbaditu zituzten. 1620an, Iparraldea Frantziako koroan barneratu eta 1659an, Pirinioetako Itunaren ondorioz, egun ezagutzen dugun Frantzia-Espainiako mugak ezarri zituzten.

kisizioak ehunka nafar sutan bizirik erretzera kondenatu zituen.

Azken ahalegina 1521ean

Iruña eta Donibane Garazi erori ondoren, gainerako nafar herriak ere segidan erori ziren, baina, ez borroka bortizetan inbasoreei aurre egin gabe. Gainera, ondorengo urteetan ere, Nafarroa Garaia berreskuratzeko nafar-biarnesen ahaleginak etengabeak izan ziren.

Azkenekoa 1521ean hasi zen, jauntxo gaztelarrek komuneroekin zuten guda zibila aprobetxatuta. Oste nafarrek maiatzean berreskuratu zuten Iruña eta bertan zauritu zuten gaztelarren alde ari zen Loiolako Iñigo. Nafarrek Logroño hartzea ere lortu zuten, baina, oste gaztelarrak komuneroen kontrako guduan garaile izan ondoren, nafarren aurka bildu ziren berriro. Noingo sarraskia (1521-VI-30), Amairuko setioa (1522-VII-19) eta Hondarribiako galerarekin (1524-III-25) amaitu ziren Nafarroa Garaia berreskuratzeko ahaleginak. ■

◆ PELOTA - 2010KO E.P.E.L.EN BINAKAKO TXAPELKETA

Mendizabal II: «Asteleheneko partidua irabaztea klabea da txapelketarako»

Mendizalek eta Olaizolak astelehenean jokatuko dute Titin III eta Pascualen kontra, Labriten. Saikapenean hirugarren dira, eta asteburu honetan gauzak "argitzen" hasi litezke, Mendizabalek Kronikari adierazi dionez.

ASTEBURU hau klabea izango da binakako txapelketako saikapena argitzen hasteko. Oier Mendizabal hernaniarrak eta Aimar Olaizola goizuetarrak, partidua garrantzitsua dute astelehenean, Iruñeko Labriten. Aurrean Titin IIIa eta Pascual izango dituzte, berak baino partidua bat gehiago irabazita daudenak. Mendizabal eta Olaizola hirugarren dira saikapenean, eta asteleheneko partidua irabazten badute nahiko ondo jarriko litzaizkieke gauzak. Men-

dizabalek badaki partidua kosta hala kosta irabazi beharra dagoela: «Titin eta Pascual momentu onean daude, baina irabazi beharra daukagu, saikapenean goi postu horietan mantentzeko».

«Pascualek ezin du eroso jokatu» Mendizabalen iritziz pareja gogorra osatzen dute Titinek eta Pascualek. Titin inork uste baino hobeto ari da jokatzeko, «berriz txisparekin ari da», eta Pascual berriz, bere joku puntu onenean dago, hernaniarraren iritziz.

Partidua irabazteaz gero, atzean Pascuali atzean eutsi egin beharko dio Oierrek, eta pelota bihurritu, abarzuarrak eroso jokatu ez dezan.

«Pascualek ez dezala eroso jokatu eta Titini abiadura sartu behar diogu. Horiek dira bi zeregin nagusiak. Hortik aurrera, Aimarrek aurrean aukerak baditu, aprobeztatuko du».

«Gero eta joku-puntu hobean gaude» Mendizabal IIa baikor dago aurtengo txapelketarekin. Hasiera pattal xamarra eman

badiote ere, azken bi partidua oso onak egin dituztela dio, eta gero eta joku-puntu hobean daudela. «Nik ondo ikusten dut neure burua; gero eta hobeto. Eskuko minik-eta ez dut, eta behetik gora nioa pixkanaka. Aimar oso ondo ari da; joku izugarria azaldu du azken partiduetan, eta esperantzaz gaude. Txapelketa luzea da».

«Irujo eta Beroiz ari dira ondoen»

Ezberdintasun haundirik ez da oraingo saikapenean; bi bikote dira besteen aurretik daudenak, Mtz. de Irujo eta Beroiz (4tik 4 irabazita) eta Titin IIIa eta Pascual (3 irabazita). Gainerakoetan, hiru bikote daude bina partidua irabazita, eta beste hiru bana irabazita. Mendizabalek uste du asteburu hau eta hurrengo klabeak izango direla txapelketan, eta gauzak laister hasiko direla argitzen.

«Irujo eta Beroiz oso ondo jokatzen ari dira, eta Titin III eta Pascual ere bai. Gainerakoan, Berasaluzek eta Beginok oraindik eman dezakete ezustekoren bat, eta baita Xalax eta Zubietak ere». ||



Oier Mendizabal.

«Bost partidua irabazten dituen, nahiko seguru saikatuko da finalerdietara».

SAILKAPENA

1-Mtz. de Irujo-Beroiz	4
2-Titin III-Paskual	3
3-Olaizola II Mendizabal II	2
4-Gonzalez-Laskurain	2
5-Xala-Zubieta	2
6-Berasaluzek VIII-Begino	1
7-Bengoetxea VI-Beloki	1
8-Olaizola I-Patxi Ruiz	1

KARTELERA

Urduliz. 2010-02-05
Mtz Irujo-Beroiz / Olaizola I-Ruiz
Eibar. 2010-02-07
Xala-Zubieta / Bengoetxea-Otxandorena
Idiazabal. 2010 / 02 / 06
Berasaluzek VIII-Begino/Gonzalez-Laskurain
Iruñea. 2010-02-08
Titin III-Pascual / Olaizola II-Mendizabal II
2010 / 02 / 14
Gonzalez-Laskurain / Bengoetxea-Beloki
2010 / 02 / 14
Titin III-Pascual/Olaizola I-Patxi Ruiz
2010 / 02 / 14
Mtz. de Irujo-Beroiz / Berasaluzek VIII-Begino
2010 / 02 / 14
Olaizola II-Mendizabal II / Xala-Zubieta
2010 / 02 / 21
Mtz. Irujo-Beroiz / Olaizola II-Mendizabal II
2010 / 02 / 21
Berasaluzek VIII-Begino/Xala-Zubieta
2010 / 02 / 21
Titin III-Pascual/Bengoetxea VI-Beloki
2010 / 02 / 21
Olaizola I- Patxi Ruiz / Gonzalez-Laskurain
2010 / 02 / 28
Olaizola II-Mendizabal II/Gonzalez-Laskurain
2010 / 02 / 28
Titin III-Pascual/Berasaluzek VIII-Begino
2010 / 02 / 28
Mtz. de Irujo-Beroiz/ Bengoetxea VI-Beloki
2010 / 02 / 28
Olaizola I-Patxi Ruiz/Xala-Zubieta

◆ ATLETISMOA

Maitane Iruretagoyena hirugarren Espainiako Erregina Kopan; asteburuan Zaragozan jokatuko du

Maitane Iruretagoyena atleta hernaniarrak Espainiako Erregina Kopa jokatu zuen joan den astean Valentzian eta hirugarren postua lortu zuen 60m-ko proban, 7.77 denborarekin.

Horrez gain, asteburu honetan Zaragozan da Gran Premio Ciudad de Zaragoza txapelketa jokatzen. 60m-ko proban hartuko du parte. Bertan Espainiako atleta hoberenak bilduko dira. Sariak izango dira lehenengo hiru atletentzat. ||

◆ PELOTA

Lau partidua jokatuko dira gaur goizean Hernanin

Asteburu honetan ere pelotaz gozatzeko aukera izango da Hernanin. Goizeko 10:00etan hasita, binakako lau partidua jokatuko dira pelotalekuan. Lehenengoak kadeteak izango dira: Leonet-Garcia/Lagunak eta Urkizu-Murgiondo/Oiarpe. Ondoren jubenilak lehiatuko dira: Santxo-Lizeaga/Legutio. Eta azkenik, nagusiak: Oiaga-San Sebastian/Lapke.

Bihar berriz, Berria Txapelketako final zortzirenetako kanporaketa jokatuko da. Irurtzun eta Amurrio taldeak izango dira aurrez aurre, goizeko 10:30etatik aurrera. ||

Atez ateko zalantzak argitzen

Nola lortzen da errauste-plantek tenperatura altuak izatea?

Askotan erregeia behar izaten da tenperatura egokia lortzeko. Petrolioia erosi behar izaten da eta, ondorioz, CO2 asko isurtzen da.

Bidali zure galdera helbide honetara: info@hernaniatezate.net
Galde-erantzun guztiak webgunean: www.hernaniatezate.net



Vanesa eta Miguelo Harategia

Aukera ezinhobea !!
Asteburu honetan
Egin zure enkargua !!
Gaur, larunbata arratsaldez itxita !!

AURREZ EGINDAKO JANARIAN (PLATOS PRECOCINADOS)
AUKERA ZABALA!!...ETA ENKARGUZ:

SAIHESKIA + Patatak 7,50€	UKONDOA + Patatak 8,50€	OILASKOA + Patatak 7,50€
---	---	--

Larramendi, 17 - HERNANI Enkarguetarako: 943 55 03 32

Allianz ASEGURUAK

- bizitza
- istripuak
- ibilgailuak
- etxeak
- komertzioak
- enpresak
- ardura zibila
- finantz aseguruak
- inbertsioak

agustin ezponda irizar agentzia

Bulego berria:
Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

Hernaniko Udala

IRAGARKIA:

Honen bitartez jakinarazten da "Hernaniko Mugikortasun Iraunkorrerako Plana" jendaurrean egongo dela otsailaren 1etik 19ra arte. Epe horretan iradokizunak aurkez daitezke, Hernaniko Udaleko Erregistroan nahiz Topagune Berdearen baitan otsailaren 20ean 10:00etan Biteri Kultur Etxean egingo den bileran.

Hernani, 2010eko urtarrilaren 26a
Marian Beitialarrangoitia Lizarralde Alkatea

◆ BOLEIBOLA

Euskadiko Txapelketa gaur Hernanin, kadeteen mailan

Hernaniko bi taldeek hartuko dute parte. Guztira 7 talde arituko dira jokoan: Bizkaiako 4 eta Gipuzkoako 3. Bizkaitarrak dira faborito.

ZENBAIT urte pasa dira Hernanin Euskadiko Txapelketa-rik jokatu gabe eta gaur, berriz, aukera izango da txapelketaz gozatzeko. Kadete mailako Euskadiko Boleibol Txapelketa izango da kiroldegian.

Denetara zazpi talde lehiatuko dira: 4 Bizkaiakoak eta 3 Gipuzkoakoak. Tartean Hernaniko bi taldeak: Hernani Langile eta Hernani Elizatxo. Gainerakoak dira: Getxo, Sestao, Lekeitio, Galdakao eta Fortuna. Hasiera batean, biz-

kaitarrak dira faborito txapelketa irabazteko; izan ere, Sestao, Galdakao eta Getxok talde indartsuak dituzte.

Bi multzoko liga

Lehiaketa sistemari dagokionez, 4 eta 3 taldeko bi multzoko liga izango da. Multzo bakoitzeko lehenengoak finala jokatuko du. Partida guztiak 3 set irabaztera jokatuko dira. Lauko taldean daude: Getxo, Lekeitio, Hernani Langile eta Fortuna. Hiru-

koan: Sestao, Galdakao eta Hernani Elizatxo.

Partiduak 10:00etan hasiko dira. Finala arratsaldeko 16:00etan izango da.

Seniorren partiduak ere gaur Senior neskek eta mutilek gaur jokatuko dute. Neskek Jaize Berri gasteiztarren aurka jokatuko dute han, Aranalde kiroldegian, 17:00etan. Mutilek berriz, Bera-Bera izango dute aurrez aurre 18:00etan Donostian. ■

◆ ERRUGBIA

Hernani eta Barcelona aurrez aurre bihar Landaren

Ohorezko B mailako Hernani taldeak atzeratuta zeukan partidua jokatuko du bihar Landaren. Barcelona Universitari Club taldearen aurka jokatuko du 12:00etan. Partidu gogorra espero dute hernaniarrek; izan ere baja dexenterekin etorri ziren aurreko asteburuko partidutik eta jokalaria berreskuratu ote diren kezka dute. ■

◆ BOLA

Tiraldia bihar Idiazabalen, festak direla eta

Bihar tiraldia izango da Idiazabalen, baina ez da bikotekako txapelketa barrukoa izango. Idiazabalen San Blas festak direla eta izango da tiraldia. Goizeko 09:30etatik 11:30etara izango da.

Joan den asteburuan, Se-guran jokatu zen txapelketako bigarren tiraldia eta sailkapetan M. Madina eta G.Gereño lehe-

nengoak dijoazte 175 brillarekin. Hernaniarretan M. Retegi-A.Santosek 156 brila dituzte, M.Burugain-J.Ugaldek 153 eta Miner aita-seekek 147. ■

◆ SASKIBALDIA

Teklan Hernanik Astigarragaren aurka jokatuko du gaur

Teklan Hernani senior taldeak Astigarragaren aurka jokatuko du gaur partidua. Astigarragan izango da arratsaldeko 16:00etan. ■

KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA				PELOTA-Berria txapelketa - Irurtzun-Amurrio			
E. Ohorezko Maila	Pasajes-Hernani	Don Bosco	Gaur 16:30	Seniorkak	Ollio-Zabaleta / Jauregi-Gartzia	Hernanin	Bihar 10:30
Emak. liga. Igoera	Tolosa-Hernani	Tolosa Usabal	Gaur 17:30	Jubenilak	Barberena-Beraza / Dorronsoro-Legarreta	Hernanin	Bihar 10:30
L. Erregionala	S.Tomas Lizcoa-Hernani	Berio	Bihar 15:30	Kadeteak	Ansa-Otamendi / Goikolea-Urrebo	Hernanin	Bihar 10:30
Jubenila. L. nazionala.	Hernani-Leioa	Zubipen	Gaur 16:30	PELOTA-Gipuzkoako Txapelketa			
Jubenila. 1. maila.	Hernani-Zarautz	Zubipen	Bihar 12:15	Kadeteak	Leonet-Garcia / Lagunak	Hernanin	Gaur 10:00
Jubenila. Kopa	Internacional-Hernani	Mattgoxotegin	Dihar 12:00	Kadeteak	Urkiizu Murgiondo / Oiarpe	Hernanin	Gaur 10:00
Emak. Kad.	Ostadar-Hernani	Michelin	Gaur 10:30	Jubenilak	Santxo-Lizcaga / Legutio	Hernanin	Gaur 10:00
Kadeteak. O. maila	Hernani-Urola	Zubipen	Gaur 18:30	Seniorkak	Oiaga-San Sebastian / Lapke	Hernanin	Gaur 10:00
Kadeteak. 1. maila	Hernani-Touring	Zubipen	Bihar 17:30	ARETO FUTBOLA			
Infantilak	Hernani-Aretxabaleta	Zubipen	Bihar 10:30	1. maila	Vnetanas Isu-Yone Boutique	Lasarte	Bihar 11:00
Infantil Txiki	Hernani-Urola	Zubipen	Bihar 15:15	2. maila	Aldur-Pinturas Etxadi	Kiroldegian	Gaur 18:30
Alebinak	Hernani-Ostadar	Zubipen	Bihar 10:45	XAKEA			
SASKIBALDIA				Gip 1. maila	Hernani A Afili A	Hernanin	Gaur 16:00
Seniorkak	Astigarraga-Teklan HKE	Astigarraga	Gaur 16:00	Gip 2. maila	Hernani B-Añorga A	Hernanin	Gaur 16:00
Jubenilak	Hernani-Autoesk.Lagunak	Hernanin	Gaur 16:15	WATERPOLOA			
Kadeteak	Hernani-CaldereriZaher	Hernanin	Bihar 17:00	Seniorkak	Hernani-Tzarraitz	Kiroldegian	Bihar 13:30
Kadeteak1	S.Tomas Lizcoa-Hernani	STLizcoa	Gaur 12:00	Neskak	Lautada-Hernani	Gastciz	Bihar 11:00
BOLEIBOLA				ERRUGBIA			
Seniorkak neskek	Jaize Berri-EHU Hernani	Gasteiz-Aranal	Gaur 17:00	Ohorezko B I	Hernani A-Barcelona	Landare 1	Bihar 12:00
Seniorkak mutiak	Bera Bera - EHU Hernani	Donostia	Gaur 18:00	Jubenila	Hernani-Gebo	Landare 2	Gaur 16:00
Kadete Eusk.Txap	Hernani-Fortuna	Kiroldegian	Gaur 10:00	Infantilak	Gipuzkoako bilkura	Anoeta Mini	Bihar 10:30
Kadete Eusk.Txap	Gebo-Hernani	Kiroldegian	Gaur 11:15	Infantilak	Gipuzkoako bilkura	Anoeta Mini	Bihar 10:30
Kadete Eusk.Txap	Lekeitio Hernani	Kiroldegian	Gaur 12:30	Kadeteak	Hernani Gebo	Landare 1	Gaur 16:00
				Benjamin - Aurrebenjamin - Albiñen bilkura		Landare 2	Bihar 10:00

◆ FUTBOLA

Erregional ohorezko mailako taldeak Pasajesen aurka jokatuko du gaur Zubipen, eta emakumeek Ostadarren aurka Michelinen

Erregional ohorezko mailako Hernani taldeak Pasajes izango du gaur aurrez aurre Zubipen. Arratsaldeko 16:30etan izango da partidua.

Emakumezkoen ligan, berriz, Hernanik Ostadarren aurka jokatuko du Michelin zelaian. Goizeko 10:30etan izango da. ■

◆ ARETO FUTBOLA

Yone Boutiquek eta Aidurrek aurrenekoen aurka jokatuko dute asteburuan

Areto futboleko Hernaniko taldeek partidu garrantzitsuak jokatuko dituzte asteburu honetan. Lehenengo mailan jokatzen duen Yone Boutique taldeak Ventanas Isu taldea izango du aurrez aurre bihar 11:00etan, Lasarten. Aidurrek etxean jokatuko du gaur, 18:30etan, Pinturas Etxadiren aurka. Gaur irabaztea beharrezko izango du lehenengo bosten artean sartzeko eta igoera fasea jokatzeko. ■

◆ GIMNASIA ERRITMIKOA

A mailako eskolarteko eta Amateur federatu txapelketa gaur Arrasaten

Gimnasia erritmikoko A mailako eskolarteko eta Amateur federatu txapelketa jokatuko da gaur Arrasateko Uharteko frontoian. Hernaniko partaideak izango dira: Infantil A taldekoa (5 uztaia): Hernani GEE; infantil A Banaka (uztaia): Malen Martinez, Maider Lopez eta Ane Macicior; kadete A taldekoa (mazoak eta uztaia): Hernani GEE; kadete A banaka (uztaia): Maialen Garcia; eta Jubenil B taldekoa (mazoak): Hernani GEE. Goizeko 10:00etatik 13:30etara (infantil eta kadeteak) eta arratsaldeko 16:30etatik 20:00etara (kadete eta jubenilak). ■

◆ XAKEA

Hernaniko bi taldeek gaur arratsaldean jokatuko dute Hernanin

Hernaniko bi xake taldeek gaur jokatuko dute 16:00etan, Hernanin. Hernani A taldeak Alfil A izango du aurkari eta Hernani Bk Añorga A. Aurreko asteburuan Hernani Ak 3-1 galdu zuen Zarautzen aurka eta Hernani Bk 2,5-1,5 irabazi zuen Gros Eren aurka. ■

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† XANTI GORROTXATEGI ARTOLA

JAUNA

Atzo hil zen, Ereñotzun, 84 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Emaztea: Kontxi Urdanpilleta; seme-alabak: Igone eta Valentin Rojo, Elena eta Jexux Mari Apeztebea eta Joseba; bilobak: Jon, Aitor eta Ane; anai-arrebak: Joxe Mari (+) eta Maria Altuna (+), Luis eta Dolores Oiarzabal; ezkon anai-arrebak: Joxe Mari Urdanpilleta (+) eta Manoli Ormaetxea, Sebastiana eta Luis Marco, eta Miguel eta Juani Agirre (+); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek. Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezte **GAUR, LARUNBATA**, arratsaldeko **SEIETAN, Ereñotzuko SAN ANTONIO** parroki elizan gorpuzta bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Ereñotzun, 2010eko otsailaren 6an

Helbidea: Ereñotzu, 7

OHARRAK: Gorputza HERNANIKO ORBEGOZO FUNERARIA TANATORIOAN dago.

FUNERARIA ORBEGOZO

ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.

943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com



- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

 Zentrala HERNANI
 Latxunbe, 7

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

TELEFONAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
● **FARMAZIAK** ● **Eginez:** Gomez Kale Nagusia 14 - 943 554892 ● **Gauez:** Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA ● **GAUR** Haizea ipar-mendebaldera aldatuko da eta laino asko pilatuko dira eta euria egingo du. Temperatura nahiko antzekoa: Min.8° / Max.13°.
● **BIHAR** Eguraldiak nabarmen hobera egingo du egunean zehar, baina gauean lainoak ugarituko dira berriro. Haizeak hegotik joko du. Min.7° / Max.14°.
(euskalmet)



Zomorro eta zahagi-dantzaren bueltan ospatuko dituzte iñoteak gaur Aranon

Goizuetan datorren igandean, hilaren 14an hasiko dira inauteriak eta lau egunetan mozorro, zahagi-dantza eta musika izango dira nagusi.

GOIZ goizetik nabari da gaur mugimendua Aranon; izan ere, iñoteak gaur dira ospatze-koak eta zomorroak eguna argitzearekin batera hasi dira prestatzen. Zuriz jantzi, zinta koloredunekin eta morla eta koxkabiloekin lagunduta, zapela gorriak buruan dituzte... goizeko 08:00etan dute hizordua Kontsejun.

Baserriz baserri puxkak biltzen ibiliko dira goiz guztian zehar Izer eta Alabier trikitilarien laguntzarekin. Etxe bakoitzeko buelta egindakoa, zomorroak erretiratzeko hasiko dira San Roke elkartearen presta-

► Egitaraua

08:00: Kontsejun elkartuko dira zomorroak.
Goiz guztian zehar baserriz baserri ibiliko dira puxkat biltzen Izer eta Alabier trikitilarien laguntzarekin.
Eguedian Herriko San Roke elkartearen bazkaria.
Ilundu aurretik, zahagi-dantza izango da herrian zehar.
Ondoren, herri afaria elkartearen.
Afal ondoren, Tapia eta Leturiarekin erromeria.

tutako bazkarirako.

Bazkalondoren, zahagi-dantza eskainiko dute herrian zehar. Ikuskizuna plazan bukatuko da trikiti pieza batzuz dantzatuaz, eta segidan,

San Roke elkartearen elkartuko dira guztiak herri afariaren bueltan. Afal aurretik eta ondoren, Tapia eta Leturia arituko da giroa berotzen. Erromeria ederra izango da.

Goizuetan datorren igandean hasita, lau eguneko festa izango da

Goizuetan, berriz, datorren igandean hasiko dira, hilaren 14an eta lau egunetan ospatuko dituzte inauteriak: igande, astelehen, astearte eta larunbatean. Azken hori kontuak egiteko larunbata izango dute. ■

❖ GALDUTAKOAK

Betaurreko graduatuak galdu ziren astelehen gauean

Patila berde ilunak dituen betaurreko graduatuak galdu ziren astelehen gauean. Oarsotik Sandiusterrri pasa, eta Grupo Lili (Santa Barbara, 41) bidean galdu ziren. Deitu: 943 552 173. Saritu egingo da. ■

HERNANIKO KRONIKAK PRAKTIKETARAKO PERTSONA BAT BEHAR DU

Bidali zure Curriculum Vitae-a, otsailaren 22ra arte

- kronika@kronika.net
- DOBERA EUSKARA ELKARTEA
LARRAMENDI 11 BEHEA
20.120 HERNANI

Egin beharrak:

- 10. urteurrena prestatzen eta aurrera eramateko laguntza
- Lan administratibo eta Marketing arloan

Eskatzen da:

- Iniziatiba edukitzea.
- Taldean lan egiteko gaitasuna
- Euskera menperatzea

Baloratuko da:

- Lehenago horrelako lanetan aritua izatea
- Jende aurrean esperientzia izatea

Eskainiko zaio:

- Praktiketako kontratua
- Praktikak ordainduak izango dira.

GURE ARTEAN EUSKARAZ 2010

8 lagunek euskara praktikatzeko zure laguntza behar dute.

5 euskal hiztunen bila gabiltza *astean behin, ordubetez euskaraz... pasiatzeko, kafetxo bat hartzeko edota, parranda egiteko*

Izena emateko deitu ezazu 943 33 27 99 telefonora edo pasa zaitez Larramendi 11n dugun bulegotik.

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

- Pisua salgai Sagastialden.** 2 logela, sukaldea, komuna eta saloia (sartzeko eta prezio onean). Deitu: 637 959 992 / 630 118 545.
- Neska arduratsua eta erreferentziaduna** umeak zainduko litzuke arratsaldetan. Deitu: 646 940 487
- Bigarren eskuko bazarra,** denetatik eta zentimo gubigatik hasita, baita zilarra ere fabrikako prezioetan: **otsailaren 3tik aurrera (10:00etatik 13:00etara).** Egun gutxi batzuetan bakarrik, **Karmelo Labaka 1** zenbakian.
- Pisu baten bila nabili alokairuan** (abala), 2 logela. Deitu: 608 671 844.
- Pisua salgai Karabelen.** 60m2, 2 logela, sala, sukaldea eta komuna. Kalefazioa badu. Berritua. Deitu: 627 403 119.
- Pianoa salgai.** Yamaha U1F modelo, bigarren eskuko. Ongi zaindua. 2.500 euro. Deitu: 629 763 041.
- ETXKO KONPONKETAK** egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... **Seriotasuna.** Deitu: 616 886 660.
- Yolanda estetika zentrua.** Fotodepilazio berria, **hilabeteko eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan.** "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. **Atzieta 2, behea.** Tel. 943 55 32 78.
- Argia zentroa.** Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropaxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2).** 943 55 76 76
- Iniigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Etor zaitez eskola ikustera!

"TXIRRITA" - EREÑOTZU

Matrikula: otsailaren 1etik 12ra
Telefonoa: 943 554256

Jangela badaukagu

BALANTXA

dvd 24 ordu - prentsa - liburuak - opariak - txubeak

ORDUTEGI BERRIA

ASTELEHENETIK OSTIRALERA

7:30 - 13:00
17:00 - 20:00

LARUNBATA	IGANDEA
8:30 - 13:30	10:00 - 13:30
17:00 - 20:30	17:00 - 20:30

ANTZIOLA 7 ☎ 943 55 35 58

Inmakulada Ikastetxea

943 550233 Sandiusterrri, 4 direccion@lainmaculadahernani.com

MATRIKULAZIO EPEA	HEZKUNTZA ESKAINTZA
Otsailaren 1etik 12ra	Haur eskola 0-3 urte
	Haur hezkuntza 3-6 urte
ESKOLA BISITATZEKO ORDUTEGIA	Lehen hezkuntza 6-12 urte
Irakasleekin egoteko 12:00-13:00	Bigarren hezkuntza 12-16 urte
Idazkaritza 9:00-13:00	Erizain laguntzailea EMHZ
14:00-17:00	
	BESTE ZERBITZUAK
	Jangela zerbitzua
	Zaintza goiztiarra 8:00-9:00

www.lainmaculadahernani.com